



## KOMUNIKAZIO SAILA

# Animabasque-Business merkatuak animazioaren sektoreko nazioarteko ekoizleak eta banatzaileak bilduko ditu Bilbon, martxoaren 31n

- **EIKEN – Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak eta Barton Films etxeak antolatzen duten topaketa Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin egingo da, eta bideojokoen merkatuari eskainitako saio berezi bat izango du lehen aldiz.**

Martxoaren 31n, Bilboko Euskalduna Jauregian, Animabasque-Bussines merkatuaren laugarren edizioa egingo da, animazioaren sektoreko enpresen topaketa, Euskal Herriko ekoizpenen eta Estatuko nahiz nazioarteko banatzaile nagusien artean hartu-emanak bultzatzeko. Aurtengo edizioak bideojokoen merkatuari eskainitako saio berezi bat izango du, kontuan izanik azpisektore honek ikus-entzunezkoen industrian duen garrantzi gero eta handiagoa.

Aurreko edizioetan bezala, Animabasque-Business merkatuak bi saio izango ditu. Goiza aurkezpenetarako izango da, eta era guztietako xehetasunak emango dira martxan dauden hainbat proiekturi eta merkatura etorriko diren enpresen azken lanei buruz. Gero, "matchmaking" saioa egingo da; hots, aldez aurretik edo goizeko aurkezpenen ondoren hitzartutako bilkurak eta elkarrizketak, produkturen batean parte hartzeko edo hura erosteko asmoa duten enpresen artean.

Berrikuntza gisa, saio berezi bat eskainiko zaio bideojokoen sektoreari, *Delirium Studios* enpresa espezializatuak aurkeztua. Ekimen honen helburua, antolatzaileen hitzetan, merkatu berriak zabaltzea da, etorkizunerako estrategikotzat hartzen den eta gero eta eskaera handiago duen sektore batean.

Era berean, "matchmaking"-a hasi aurretik, Balear Uharteetako Ikus-entzunezkoen Klusterraren aurkezpen berezia egingo da. Kluster honek "Kreandu" izeneko proiektua jarri du martxan, "Crowdfunding" kontzeptuan oinarritua, finantzazio eredu berri bat sortzeko xedearekin, interesatuta

dauden pertsona guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten, zeregin hori pertsona baten edo entitate baten esku utzi ordez.

EIKENek eta Barton Films etxeak elkarlanean antolatzen duten topaketa Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapena Sailaren laguntzari esker egiten da, eta Euskal Herriko animazio industriari bultzada emateko eginkizuna du, atzerriko merkatuetara zabaltzen laguntzeko. Aurreko edizioetan aurkeztu diren proiektu batzuek oihartzun handia izan dute gero atzerrian (Black to the moon, Perez Raton 2, Moonrige 5). Alde horretatik, aipatzekoa da, adibidez, Pedro Rivero bilbotarraren "Birdboy" laburmetraia: iazko edizioan aurkeztu zen eta aurre-hautatua izan da aurtengo Oscar sarietarako.

### **Euskal Herriko eta atzerriko industria**

Goizeko saioan, 9:00etan hasi eta 14:00etan amaituko dena, IV. Nazioarteko Animazio Merkatura hurbilduko direnek 12 enpresaren proiektuak ezagutzeko aukera izango dute; horien artean 4 euskal enpresa daude: **Baleuko**, **Bitart** -biak ala biak EIKENeko bazkideak-, **Bainet** (Kukuxumuxurekin lankidetzan) eta **Somuga**. Lau horiei beste honako hauek gehitu behar zaizkie: estatuko 6 konpainia (**Balieri Studio**, **Inercia**, **Fran Bravo**, **BNC**, **Mago Production** eta **Osibis**), **Master Studio** errusiarra eta **Wonky** ingelesa -**Scrawl Studios**-ekin lankidetzan-.

Nazioarteko Animazio Merkatua urtero egiten da, **AnimaBasauri7-Animabasque** jaialdiarekin batera, eta topaketan parte hartzen duten ekoizpen etxeen balio komertziala indartzea du helburu, aurkeztutako proiektuek banatzaile potentzialen artean sor dezaketen interesari erantzutea. Azken xedea, antolatzaileen esanetan, aurkeztutako lanei aurrera egiteko modua eskaintzea da, akordioen, koprodukzioen eta barne eta kanpo merkatuetako banaketaren bidez.

Enpresen arteko hartu-emanak bideratzeko saioa arratsaldeko "matchmaking"-aren bidez egiten da, aurrez hitzartutako elkarrizketen eta lan-mahaien bitartez, profesionalen, ekoizleen eta banatzaileen artean.

Aurreko edizioen arrakasta ikusita, ekimenaren arduradunek espero dute aurtengo edizioa beste urrats bat izatea AnimaBasque-Bussines merkatua Estatuko animazioaren sektorean erreferentzia nagusi bihurtzeko egiten ari den ahaleginean.

(Ikus "**Programa**" hurrengo orrialdean)

---

MBN Comunicación  
Javier Palacios  
Tel.: 94 435 63 30

ORDUTEGIA	PROGRAMA
<b>09:00-11:00</b>	<b>PROIEKTUAK – 1. SAIOA</b>
09:15-09:30	"ICEBERG" - BAINET/KUKUXUMUXU
09:30-09:45	"KUTXU!" - BALIERI STUDIO
09:45-10:00	"CAPITÁN VEGETO" - SOMUGA
10:15-10:30	"EL HADA MENTA" - INERCIA
10:30-10:45	"THE MAGIC TOWER" - MASTER STUDIO
10:45-11:00	"SMOLITOON" - BALEUKO + CARTOON4KIDS
<b>11:00-12:00</b>	<b>COFFEE BREAK</b>
<b>10:00-13:30</b>	<b>PROIEKTUAK – 2. SAIOA</b>
12:00-12:15	"ILAND" - WONKY + SCRAWL STUDIOS
12:15-12:30	"LOS DIVERSÓNICOS" - FRAN BRAVO
12:30-12:45	"THE STORY ISN'T OVER YET" - BNC
12:45-13:00	"FLYING SQUIRRELS" - MAGO PRODUCTION
13:00-13:15	"CUENTOS DESDE EL HORIZONTE" - OSIBIS
13:15-13:30	"EVOLUCIÓN" - BITART
13:30-13:45	BIDEOJOKOEN SAIO BEREZIA - DELIRIUM
<b>14:00-15:30</b>	<b>BAZKARIA</b>
<b>15:30-15:45</b>	<b>KREANDU PROIEKTUAREN AURKEZPENA – BALEAR UHARTEETAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN KLUSTERRA</b>
<b>15:45-18:00</b>	<b>WORKSHOP</b>

